

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Piraten itsaso zabalean


Epailearen aurretik pasa ondoren, Polizia Nazionalaren kalabozoetara eraman dute Abdu Willy. Duela hiru aste atxilio-tu zuten eta, estradizioa eskatuta, Madrilera eraman dute. Lehenengo aldia da kostaldeko herrixkatik ateratzen dela, nora eta Europara preso. Beldurtuta eta ahulduta, ia ez du indarririk ziegarako bidea egiteko. Ustekabean, zirrara handia sentitu du burdinen atzean mutil beltz bat ikusita. Hurbilekoa somatzen du, senide edo lagun bat bailitzan. Hura ere afrikarra da, itxuraz mendebaldekoa, pentsatu du. Goizera arte elkarren ondoan egongo dira kalabozoan, bata Somaliakoa, bestea senegaldarra.

Pirata asko dago lurrian, airean eta itsasoan, baina gizajoenek bakarrik bukatzen dute preso.

* * *

Aladji Mbengue 29 urteko senegaldarra sei hilabete pasako ditu Basauriko kartzelan, kopiatutako musika eta pelikulak saltzeagatik. Horrez gain, 900 euroko isuna ordainduko du, eta SGAE autoreen elkarteari 650 euroko kalteordaina eman beharko dio. Hori gutxi ez, eta Europatik botako dute hiru hilabete barru presondetik ateratzen denean.

Pirateriaren kontrako borrokan egurra ahulentzat, nahiz eta kalean saldutakoa legez kanpokoaren ehuneko hamar besterik ez izan.



Jabetza intelektualaren defentsan urrutiegi joan dira batzuk, inkisidore bihurtu dira, eta etsaiak ez dituzte ondo identifikatu. Norbaitengana jo behar, eta zer hobe babesgabekoak baino.

Denok daramagu pirata txiki bat barruan, ondo disimulatua, baina beti prest aukera txikiena sortzen denerako. Ordenagailuaren anonimotasunean, milioika piratakeria egiten dira Interneteko itsaso zabalean, baina somaliarrek eta senegaldarrek daramate etiketa.

* * *



Denok daramagu pirata txiki bat barruan, ondo disimulatua, baina beti prest aukera txikiena sortzen denerako



Kalean, egun argiz eta nahita, delitugileen konplize naiz. Ezagunak ditut Debako hondartza inguruan ibiltzen diren hainbat senegaldar, ondo dakit zenbat estimatzen duten norbaitek kasu egitea. Wolof hizkuntzan “kaixo, zer moduz” esan, eta pare bat CD erosi diet. Shakiraren eta Alex Ubagoren azkenak. Zergatik 20 euro ordaindu bakoitzagatik, abesti bat edo bi bakarrik gustatzen bazaizkit? Afrikarrei erosiko ez banie ere, ez nituzke dendan erosiko. Horretaz pentsatu beharko lukete egileen defentsan dabilzanek. Egileek euren eskubideak dituzte, noski, eta kontsumitzaileok ere bai. Eta batez ere, denok daukagu bizimodua aurrera ateratzeko eskubidea, baita afrikar kale saltzaileek ere. Egileen eskubideak defendatu bai, baina ez edozein modutan, edozein preziotan. ■

TXANDAN

Joseba Barandiaran

Pertzentiletaraino



Halaxe nago, pertzentiletaraino egina. Ez dakit, irakurle, Jakoba Errekondok eskaini nahi izaten digun beste sagardo hori antezman dezaitezun gaian edo, beste barik, estatistikoen patologia neure inguruan baino ez den ematen. Haurren luzera eta pisuaz ari naiz. Gure gizarteko haurren luze astunak guraso asko kezkatzen du. Euren haurra %50eko pertzentiletik gora ikusi nahi dute beti, bai pisuan baina, bereziki, luzeran; “Tauletatik gora” hazi direnak ere, salbuespen baino, ia arau bihurtzeraino. Eta adin

ezberdineko haurren konparaketa ahalbidetzen duenez, horrelako pitokeriak galdetzen dizkizute edozein domeka goizez: “Zuen alabak zenbateko pisua zuen 2 urterekin? Zein pertzentiletan zegoen?”. Norbere adina edota pisua ezkutatzera edo mozorrotzera jotzen duten “helduok” eurok, sekulako garrantzia ematen diote euren seme alabenei. “Pisuan ondo, %50eko pertzentiletik gora eta, garaieran, bikain, %90etik gora”. Ez da posible gure saskibaloi taldeetako bihar etziko jokalaria guztien gurasoak neuk ezagutzea. Pertzentiletaraino egina nago. ■